

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

272n. zenbakia  
aprilla 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE




**ATENAS**

- URI ERPIÑEAN (AKROPOLIS)
- KARIATIDEAK

*Zer nolako zortea  
gure hizkuntzarena,  
taita iturritatik  
adaten duena.  
Euskararik onena  
da norberarena,  
eta txarrena, berriz,  
agiten ez deva.*

**Xabier Euskitze,**  
2001 eko arriaren 18a

euskararik onena **zeurea**



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

**Bizkaia**

## ERREGIAREN ESKUBIDEAK (ANAITASUNAREN AURKA)

"Baiña gogoan izan..." Erabagi onen barri, aurretiaz emon eutsen: ...Erregea zuen semeakaz baliatuko da guda gurdi ta tresnak erabilteko ta beren zaldizko jagole izan daitezzen. Euren artetik aterako ditu mutillak lurra (antze-ko, gariak ebagiteko ta gudarako arma ta gurdiak sortze-ko... Ta zuen alabak bere sukaldari, ogigille ta usain gozozen lurruntzaille beretzat artuko ditu...

Ta munduko kontu polit legez mastirik onenak, sagardi jorienak, arnari leku onenak kenduko dautzue ta beren aldezkoei emongo dautsez. Ta onez gaiñera, gari ta matsen euneko amarregaz bera geldituko da, bere inguruko laguntzaillei emoteko.

Ta zuen jende ta abererik onenak artu ta bere onerako erabiliko ditu.

Orra or Samuelen berbak... Ona emen, errege izango jatzuenaren eskubideak. Zuen semeak artu ta bere burdi ta zaldietarako izendatu eta bere burdi-aurrean joateko erabiliko ditu, batzuk milla gizonen burutzat, eta beste batzuk berrogei ta amar gizonen burutzat erabiliko ditu, batzuk lurak lantzen eta solo-ariak ebagiten eta beste batzuk guda iskillak eta burdi tresnak egiten. Zuen alabak usaingarrigilletzat, sukaldarizat eta ogigintzat eroango ditu. Zuen landak, mastiak ta oliodorik onenak artu ta bere lagunai serbitzariak emongo dautsez. Zuen morroineskameak eta zuen idi ta astorik ederrenak artu ta bere etxaguntzan erabilteko eroango ditu.

Erriak, sarri oi dan lez, berenetan itsututa, errazoi ta argitasun oneik entzuterik ez eban nai. Euren gaiñetik, gizona nagusi eukitea nai eben, Jaungoikoa bakarrik buru euki bearrean.

Jaramon egin eta emoezu errege bat, erantzun eutsen Jaunak. Orduan, doala bakotxa bere errira, esan eutsen Samuelek.

Esan da izan... jokera orregaz laster damutu bearko dabe. Orduan, zuek zeuentzat aukeratutako erregearen aurka, deadarka asiko zare, baiña, Jaungoikoak ez dautzue erantzungo... (Samuelen lenengoa, 8.18) Errege bat aukeratu ta arengan euren ustea jarrea, oben aundia izan zala ezagutu bearko dabe... Gari-ebagitea da orain ezta... Begira ba, Jaunari dei egingo deusat, trumoa ta euri —jasa bialdu dagizan. Orrelaxe ezagutu ta ikusiko dozue, zeuentzat errege bat eskatuaz, Jaunaren aurrean egin dozuen gaiztakeri aundia... Samuelek dei egin eutsen Jaunari, eta Jaunak egun artantxe trumoiak eta euri jasa bialdu ebazan.

Erriak berean darrai, obenetik ez dau urtetan ta pekatuan salbamena itxaroten jarraitzen dago... Baiña orduan, gaur legez, euren uste ta bideetatik ez eben lortu bardintasuna ta anaitasuna galtzea baiño besterik.

Euren asmo ta usteak bertan bera ondutzen laster asi ziran. Jaungoikoak iragarritakoa beteten beingoan asi ziran, batzuk geldika geldika, guztia eurenganutzen joan ziran. Aren lenagoko bizi zentzuna, tamalez, aldatu zan, bata besteari on egitera ez egozan, naita —ezean, indartsuak otseindu bearrean baiño— Indartsuenen legea, aberatsenen legea, ondasun sail aundien legea, goiko makilla legea agintzen asi ziran, Jaungoikoak aginduriko anai legearen orde. Munduko jokabidea, lengoa ta gerokoa, beti, negarrezko legea.

Israeldarrak beste errien antzeko biurtu ziran, zapalkuntza ta negarra naiago, Jaungoikoak eskeintzen dauan zuzentasunezko anaiasuna baiño.

**Solozabal'dar Paulin**

## LATIEGI TAR BIXENTE

Ongi etorri gure etxera  
Gipuzkoar jaun aundia,  
Probintzi biok erri bat gara  
odol bardiñez bustiak,  
anaitasuna, berez, jatorku  
asabengandik artua,  
gora ta gora esan bear dot  
gaur zure etorreria.

Erri eder bat daukazu aurrez  
ta zu beraren altsuan  
toki oberik ezin aurkitu  
biziaren inguruan,  
Mungi maitea, edei atea  
jakitasunaren onduan,  
ama ta seme, pozez, biltzeko  
egun ederren barruan.

Euskalerriko erri onetan  
ba-dozuz gauza bikaiñak,  
lenen lenengo esan bear dot  
euskeraren itz ederrak,  
inguruetan opaka daukaz  
bide ta zelai zabalak,  
gogo onenaz gozartu eizuz  
Mungiko edertasunak

**Paulin**

## **LEGE ZARRA KENTZEN**

### **3.-ESPARTEROERREGE-ORDE (1841-1843)**

Urte onen inguruan aldakuntzak bein eta barriro egi-ten dira, batean lege zarra kendu eta bestean ipiñi. Bizkaitarrak sendo agertzen dira beti lege zarraren alde eta españatarrak beti Laterri-legea España osoan bardin betetearen alde.

Maria Kristinak alegiña egin eban lege zarraren alde, baiña erbesteratu egin eben eta Marsellan bizi zan. Andik sarritan agertzen dau Espartero errege-ordearen aurkako gorrotoa eta iñoz, ikusiko dogun lez, matxinadea sortu be bai. Bizkaitik eskerreak bialdu eutsoezan lege zarraren alde egin ebanagaitik, eta Espartero, ori jakin ebanean, asarre bizitan jarri zan bizkaitarren aurka. Gudaroztea gertatzeko asmoa be izan eban.

Bizkaiko aldunak be sendo egozan euren bidean eta Espartero'ri argi esaten eutsoen lege zarra aintzat artzen ez ba'da eziña izango dala bizkaiko bakea.

Espartero'k Gomez de la Serna izendatu eban korrexidore baiña gobernatzaillearen eskubideakaz. Barriro asarretu ziran aldunak ori gure foruaren aurka egoalako. Ormaetxe joan zan Madrid'era berba egitera eta epaitegiak lege zarraren arauz ipintea eskatu eutson. Espartero'k, ostera, aduanak mugara ta itxasora eroatea eskatu eban eta naparran artu eben jokabide ona ipiñi eutson eredu lez. Lege zarretik Laterri-legearen aurka dagoanik ezer ez dala onartuko esan eutson eta korrexidorea epailari izatea zala laterri-legearen aurkako jokabide bat.

1841n.urtean kendu eban betiko Esparterok foru-baimena eta lege zar osoa arriskuan izteko bidea izan zan ori, ezelako eragozpen barik Españatarrak euren aginduak sartzen ebezelako. Emen be Espartero gertu agertu zan izkilluetara joteko.

Maria Kristiñak Frantzitik matxinadea gertatu eban eta Espartero'ren aurka jagi ziran 1841n.urtean erregeiña ipinteko, iru zioagaitik: Lege zarra kendu nai ebalako, emen O'Donnell egoan erregeiñearen alde. Bigarren errege-ordetza legearen aurka artu ebalako, eta irugarren erlejiorearen aurka jokatzen ebalako. Euskaldunai eta naparrai forua euren esku izango eba berbea emon eutsen Maria Kristinak. Bilbo'n Espartero'ren lagunak artu eta Orduña'ko mugara eroan ebezan. Aldundiko balkoitik itzaldia egin zan.

Emen agertu zan Espartero'ren agindu gogor bat eta euskaldunen lagunak Frantziara joan bear izan eben, Erregeiñearen ondora. Espartero'k ia foru guztiak kendu ebazan. Korrexidore Gobernatzaille'antzekoa ipiñi eban, udalak Españan lez aukeratu bear ziran. Aldundia beste lurraldeetan lez Laterri-legearen barrura sartu zan, epailaritza Españakoa langoa ipiñi zan, Aduanak itxas-ertzera aldatu ziran eta zerga-batzea korrexidoraren ardurapean geratu zan. Eta izun-ordainkiak be bai. Ez dira aitatzen gudaritza eta zergak.

**Olazar'tar Marin'ek**



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI 'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

## **BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ**

### **ZER ALDIZKARIA**

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 18,03 €(3.000 pezeta). Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

## LAGUNEN ARTEKO ALKAR-IZKETA

Gaur ere arritu naz Zornotzako gizon bategaz, euki doten alkarizketaren bitartez. Bera Bilbon bizi da eta Zornotzan sarri egoten da beren etxeko gauzen goraberan.

Nire lagunaren adiskide eta auzoa da, abertzalea dala eta Eusko Alderdi Jeltzalearen bazkide badala esaten dau: "gure alderdia baiño oberik ez dagoalako Mundu osoan, berak daukan zentzuzko moralala eta jatortasunagaitik".

Baiña artean, Espainola ba-dala esaten eustan, eta gure alkarizketa ez neban luzatu gurako ortik aurrera, jakin ez ba-neban beren gurasoak abertzale jatorrak zirala, langille onak eta beroneri be senidetasunaren maitasuna ain sakon bere sentikeran sartu dautsoela.

Len esan doten lez bera Bilbon bizi da ezkondua. Alaba bi daukiez ikasketa nagusiak eginda eta bat osagillea dana. bestea esan eban zer zan baiña ez naz gogorazten. Dana dala, baleiteke berak Ingelesa Gaztelera baiño obeto jakitea. Euskera ere badaki, baiña ez dabe barbarik egiten, eta or dauka arazoa. Europa guztitik ere asko ibili da bere lana egiteko. Ikusten dogunez, goi-maillako jakintza da sendi orretan dagoana. Orregaitik aztertu bear dogu, zergaitik ain oiñarri onak eukinda, agertzen dan bigarren Nortasun ori gogamen orretan.

Orretarako iru egi-irudiagaz aztertuko ditugu beren adieraztasuna, gitxi gora-beran jakiteko, gure erriko seme-alaben gogoetan nola sartzen diran gezi-pozoitsu oiek:

1'go.- Sendiaren eredia.

2'gn.- Bizi dan ingurua.

3'gn.- Nor beraren Erri-jakintza edestitik zear.

Lenengo etxeko eredia obeagorik ezin izan, len aitatu dodan lez, gurasoak fededun eta abertzale zintzoak zirala-ko.

Etxe nagusian edo Errian ere, ondo baiño obeto senitasun artean bizi ziranak guda aurretik eta osteko denboratan. Ume izan zala guda aurretik ikastolara joaten zan ikasketak euskaraz jantzeko, eta guda ostetik, benetako erriaren miña beren Askatasunagaitik.

Bigarrena, ikasketa nagusiak amaitu ebazanean, Bilboko banketxe batera sartu zan lan egitera eta andik Madril'ko banketxe batera: erbesterako merkataritzaren nagusi urte askotan.

Gure alkar-izketan: Euskalerrriak gaur baiño askatasun andiagorik ez daukala sekula eukin; Bereziatasunaren Abertzaletasuna eskakizuna dala beti; eta arrituta dagoela bera dauan zain-dardararekin, bizitzarako ainbeste ontasun eukinda Espaina barruan, iñundik

iñora ez dagoalako irten-biderik ortik aurrera, esaten eustan.

Eskalerrriko edestitik ikututen ibili nintzan, merkataritzaren arloan batez-be, eta emen argi ikusten neban, gure Erriko merkataritzaren eginkizunetan Iortutako elburuak, Espainolaren izenpean biurtzen ebazala. Gaur, PP'koek esaten dabe ber-bera.

Gure solaseko alkar-izketaren une batzuetan, berotu eta ia asarratu egiten zan, baiña nik oiñarriaren azalpenakaz erantzuten neutson, eta ikusten neban urduritasun aundiagoan sartzen zala, minduta lez; geiago beren burua jakintsu lez emoten ebalako.

Gure alkar-izketa ezin amaitu, eta gu biok baskaltzera joan bear genduela esan enutson. Berak gu-biokin egon gurako ebala, Zornotzara sarri etorten dalako. Guk baietz esan ondoren banandu gintzazan.

Baiña emen galdera aundi bat, ez dalako lenengoa, aidean geratzen da: "gogamen ori, diruz ondo jantzita dagozelako izango da?":

Olan balitz ez zan ainbeste asarratuko, eta erreza garbitasun on bat egitea, beren sendia gurasoakaz batera gogoratu ez gero.

"Madril'goakaz eta erbestetik denbora luzean ibili dalako?":

Ori ere laster menperatuko geunke, gure Erriaren alegin onak azaldu ez gero.

"Espainia-menperatzaillaren arauen artean denbora luzcan ibili dalako?":

Ori izan leike. Guzurras apur bat zikinduta urtetea, denbora luzcan lupetzartean ibili dalako. Baiña ori ere garbitzen erreza edesti apur bategaz igurdi ez gero.

Dana dala, ni urduritu egite nauana, lenengoa ez dala, nik olan dagozenak ezagutzen dodazelako, eta jakin Erri-jakintzaren mailla ortan erdi-purdika dagozenak. curen Bereziatasunaren Nortasuna oztu edo galdu egin dabezela-ko bizitzaren ekintzatik zear.

**ORREGAZ APUR BAT GEIAGO ARDURATU  
BEAR GEUNKE TRESNERI ONA DAUKAGULAKO,  
ETA EUSKAL-GORPUTZAREN OSASUNA BEAR  
DOGULAKO.**

Argi-gorri onen ditzira da idaz-lan onen arrazoia edo eragillea.

**ATUTXA'tar Paul  
Zornotzan 2002'an otsailla'ren 12'an**

---

## ABIZENAK

---

**Antzustegi (Eibar 1592):** Amorebietan eta Bilbao dago eta Eibar'en be bai.

"Antxu" edo "antxus" intxaurra da eta "-tegi" atzizkiak ugaritasuna gaiñeratzen dautso. Erderazko "nogaleda"ren antza dauko.

**Anda (Valladolid 1535):** Araba'ko abizena eta andik Bizkaiko Enkarterrira tokiz aldatua. "Ana" abereen barrutia izanik "-da" atzizkiak tokia dala diño.

**Andikoetxea (Eibar):** Jatorri bi izan daitezke. Lenengo, urriñean, andiko aldean, dagoan etxea eta bigarrena, "andi" barrutia dala, andiaren barruan dagoan etxean.

**Angoitia (Zeanuri):** "Ana" abere-barrutia dala, "Goitia" k barruti orren goiko aldean dagoala dirausku.

**Anitua:** Bermeon eta Ziortza'n dago. Eibar'en be entzuten da baiña kanpotik joana.

"Ana" barrutia izanik, "-tu" tokia adierazteko ezarria da eta azkeneko "-a" edo "-aga", indarra emoteko ezarria.

**Ansoleaga (Urduliz 1740):** "An" abereen bedarlekua dala, "olea" gaiñeratzen jako eta onek burdin-ola dagoala bedarlekuaren barruan diño eta "-aga" azkena sendotzeko da.

Urduliz'tik zabaldua da.

**Ansorena (Berastegi 1741):** Naparroatik zabaldu da Gipuzkoako alde batera eta "Anso" k bedarleuagaz dau zer-ikusia eta "-rena" etxe ori norena dan adierazteko ezarri jako. Orrelan abizen onek jator'izko etxea "anso" edo Santxo izenekoarena dala diño.

**Anzola (Elgoibar 1597):** "Antza" bedartza aundia da eta azkeneko "-ola" n ugaritasuna gaiñeratzen dau, "urkiola" lez, baiña ez dauko zer-ikusirik burdin-olagaz.

Elgoibar'en eta Iparraldeko Saran aurkitzen dogu.

**Añibarro (Zeanuri 1770):** Idazle ospetsu baten izena da, bizkaitarra, Zeanurikoa, eta izen au daroan baserria be antxe dago.

"Ani" bedartza da eta "barro" zelaia.

**Apellaniz (Kanpetzu 1739):** Araban eta Naparroan dago.

"Apel" bedartza izan leiteke eta "an" be antzeko zer-bait. Azkenean abizen askok daroen "-iz" ori ez dakigu zer dan.

**Aperribai (1628):** Bizkaian ei dago ugari abizen au: Galdakanon, Zeanurin, Orozkon. Bergara'n be ezagutu dogu.

Karraska deritxon landara bat eta "ibai" erreka gogoratzen dauz. Etxea erreka-ondoko karraska artean dago.

**Akesolo (Dima):** "Aka" sasia dan ezkerro, sasiondoko soloan dagon etxea litzake. Badiño "akerren soloa" dala be.

Akesolotarrak ezagutu doguz eta Diman jaiok izan dira.

Aranbarri (1711): Okendon dago eta emendik joanda Azkoitia eta Ondarroan.

"Aran" basaranak dagozan tokia da edo ibarra be bai. Barri onek toki-izenetan ez dauko gauza "barria" adierazteko antzik. "Barri" basoa dala be ba-diño.

**Arana (Zumarraga 1713):** Euskalerrri osoan agertzen da, geiago sartaldean.

"Aran" ibarra da eta gaiñeratzen jakon "-a" mugatzaille. Au indartu nai danean "Aranaga" sortzen da.

Basaranak dagozen lekua be izan daiteke.

**Aransolo (Gamiz):** Bizkaian dago, etxe bi izen one-gaz Gamiz'en.


Basaranak dagozen soloa izan bear leuke, baiña toki oneitan errezago izan leiteke arantzak dagozen soloa edo aranean dagoana.

**Aranzamendi:** Bizkaian eta Gipuzkoan. Arantzak dagozan mendia.

**Arbeo (Arrasate 1399):** Aitzaren azpian dagon tokia edo etxea. "-o" azkenekoak tokia adierazten dau.

Bizkaian zabal dabil.

**Olazar'tar Martin'ek**



# ERRI TXIKIEN BIZI-NAIA (JEUSIOAREN INDARRA)

Antzeko kondizio politiku zailletan oiñarriturik bizi diran Erri txikiak, nazioak alegia, alkar-laguntza billatzen jo bear izaten dutela sarri, ongi dakigu. Onek zera esan nai du: Europa'ko errealdade politikuak argiro adierazten digula ez gerala oraindik, Europa (famaz beintzat) aurrerakoi ontan arazo nazioalisten askebidera iritxi. Errien Europa nai bait-dugu eta ez Estaduen Europa.

Europa'k oso mingarritzko zauriak agertzen ditu. Bertan, milloika dira giza-asebetasunik pozgarriena gozartu ezin dutenak, aberri jarei ta lokabea ikusten ez dutenak.

Ez dakit nik zenbat Erri txiki izango geran alako kondizio estuetan bizi-eziña agertzen dugunok, baiñan askotxo gerala, bai. Galestarrak, eskoziarrak, bretañarrak, korsoak, euskotarrok... Gales eta Eskozia gurearen antzeko autonomi-estatutorik ez eukiarren, nazioatzat jotzen ditu Bretaña Anduak barak. Eta nun-nai nazio bezela agertzen zaizkigu. Tokitan gaude, alajaña, euskaldunok onela agertzeko.

Aspalditxo, lenengo mundu-guda arek piztu zituan arazo latzak konpontzeko eta luzaroko pake iraunkor bati egiazko zimentarria emateko, Versailles'en alkartu ziranen mentalidadea aztertzeraz jartzen geranean, ontara eltzen gera: etzegoala biltoki nagusi oietan ezer konpontzeko jarrera sakonik, bildutakoak ez bait-ziran Errien edo nazioen ordezkari egiazkoak, gobernuenak eta estaduenak baiño. Batzarkideak eta dilomatikuak etzuten Erri txikien aldeko argumentu moralarik maieratu.

Europa garatu onek ba'du noski, zibilizazioaren alde egindako meriturik aski; baiñan tarteka, baita Erri txikien bizi-eziñaren obena garbitu bearrik ere.

Ankapean artutako Erriak, giza-multzo jator auek ez dira beren-berenez eta borondate utsez iñoren menpera etorri; iñork ez bait-du askatasuna nairik galtzen, iñork ez bait-ditu eskuak billurrez lotuak izateko luzatzen.

Gaur, gure Estatu politiku ontan, zenbaiten ez-jakintasunak kakaratutako españiar batasun nazionala sendoki jotzen diguten ontan ere, ba-dira, dakigunez iru arazo nazionalista larriak: euskaldunena, katalanena eta gallegoena. Izango dira bai, olakorik ikusten edo-ta ukatzen dutenak. Baiñan ikugarri zaigun errealdadea, begitik sartzen zaigun arazoa ez dago ukatzerik.

Gure Euzkadi'ri gagozkiola, iñork ez dezake esan gure Erria amets uts edo-ta irudimenezko zerbait

danik, nun-naitik begiratuta, kultura naiz izkuntza aldetik, bizimolde guztiengandik. Europarrak, danak ametitzen dute ta aldarrikatzen dute, nolabait, gure euskal naziotasuna. Agian ametitzen ez duana españiar estadua da. Iraiñez, bekaitzez naiz gorrotoz zapaldu nai gaituzte eta osorik ezabatu nai izan dizkigute gure agertzapen guztiak. Erri gerala nabarmenerazten gizkiguten agiri guztiak.

IÑOR EZ DA **BENETAKO**  
FEDEDUNA, **BERETZAT**  
NAI DAUANA ANAIARENTZAT  
NAI IZAN ARTE.

MAHOMA'K

Oraintxe bertan, or ari zaizkigu gure parlamentariak eta kontselluariak zor zaigun Erri-askatasunaren puxka dan Estatutoaren bete ez dana zorrotz eskatzen, gure Erria'rentzat dagozkigun eskabideak bearresten. Madril'ek ordea ez du eskubide-itzik ulertzen eta ezago oraindik bearretsi-aditza onartzen. España'k eskalezurrian ikusi nai gaitu bet. Senide apal nai gaitu. Guk, ordea, amatzat aitortzen ez dugula naiz jakin-erazi diogu, sasi-amatzat baiño. Eta burujabe izan geran bezela, era berean burukabe izaten jarraitu nai dugula. Lapurrari neketsu zaio ostutakoa biurtzea. Galdetu bestela espetxean dagoan Roldan orri. Eta beste batzuei pilpillean dagoen auzikoai.

Kendu zigutenaren biurrera nai dugu. Besterik ez. Gure txapela nai dugu ez koroia. Baiñan ba'dakigu ez dagoala ezer lortzerik beroak antxumaturik. Ekimenak, lanak, iraunkortasunak asko dezakete joko ontan. Eta ilusioak ere ez gutxi. Ideiak zabalduz daude. Eta gure Estatu guardiazibil onek, beti begi zearka ikusi gaitasunak, auznar beza noizpait, gure pakerako eta lasaitasunerako euskaldunoi dagokigula euskal Etxea jaurri ta gobernatzea. Ta ez kanpotik noski, etxe barrutik baiño. Demokrazia zer da ba, zertarako "animen erri-autaketa, plebiszito iraunkorra" dala adierazteko baizik!

Osintxu'k



## BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

### GUZTIA/DANA

Erderazko "todo" esateko, itz bi daukaz euskerak: "dana" ta "guztia". Latiñak be bi euskazan: "omnis" eta "totus". Nik euskerazko "guztia"ri latiñezko "omnis"en antza aurkitzen dauzat, eta euskerazko "dana"ri latiñezko "totus"en antza.

Zenbatu ezin dan gauzea danean, "dana" erabiliko dogu: "ura dana edan dau" edo "esnea dana artu dau" edo "ogia dana jan dau".

Zenbakiak erabilteko aukerea dagoanean edo "gai konmensurableak" diranean, orduan "guztia" erabili: Ez: "iru ogi egon dira eta danak jan dauz". Bai: "iru ogi egon dira eta guztiak jan dauz". Bai: "Ogei gizon jausi dira itxasora eta guztiak (ez danak) ito dira".

Arau onek ba-dau beronen oiñarria: "Dana" ez da besterik "dan a" baiño. "Ogia dan ajan dot" edo "dana jan dot". Ez: "bost ogi egon dira or eta danak jan dodaz". Esatekotan "Bost ogi egin dira or eta (egon) diranak jan dodaz".

Ikusten da orain "dana" eta "totus" antzekoak dirala? eta "onmes" eta "guztiak" antzekoak dirala?

## BALDINTZA ALA ITAUNA?

Gaztelereak dauzan illuntasunak errez-errez sartzten jakuz euskerara.

Ona emen bat: "Dime si quieres". "Si" ori izan leiteke galdera: "Esaidazu nai dozun ala ez", edo "esaidazu zeuk nai badozu". Erderaz esaldi bietan erabilten da "si", baiña ez euskeraz. Galdera danean azkeneko -n erabilten da, eta "ba" baldintza danean: "Esaidazu gura dozun ala ez", "esaidazu zeuk gura ba'dozu, eta gura ez ba'dozu ez esan".

Beti ez da argi-argi agertuko itauna ala baldintza dan, baiña geienetan bai. Ez esan ba iñoz be olakorik: "Andoni gaisorik ba'dago jakin gura dot". Emen esan "dagoan". Bai ostera: "Gaisorik ez ba'dago, datorrela gaur".

Ez daiguzan galdu euskerearen argitasunak, aberastasunak eta egokitasunak.

## LENGUSIN JOSEBE ALA...

Esaera au sarritan entzuten dogu Bizkai Irratian eta ortik errira be sartu da. Berandu ete natorren nago. Baiña ez noa izten esan barik.

Senideen izenak ipiñi aurretik ipinten dabe senide orokorra eta alderantziz dala uste dot errian. Adibide bategaz obeto uler-tuko da: "Zorionak emoten dautzuz zure lengusin Anek" Askoz obeto jotzen dau nire belarrietan "Zorionak emoten dautzuz Ane zure lengusiñak". Eta olako esaldi asko entzuten doguz Bizkai-Irratian.

Baiña onek beste gauza bat, antzekoa, dakarsku burura: "Zelan esan bear dogu lekaide edo fraille bat danean: "Aita Joakin" ala Joakin aita"? Agertu dogun erixiari jarraituz, emen be, bardin izan bear leuke: "Joakin aita" edo "Santi Aita", ez "Aita Santi".

Eta ain maite dogun Bizkai Irratia aitatu dogun ezkerro, beste esalditxu bat aitatu daigun, edo, obeto esateko, beste aditz bat: Zer da euskeraz "zoriondu"? Nire ustez, "zoriontsu biurtu", baiña ez "zorionak emon". Laburtzarren erabilten dogu "zoriondu" itza orretarako, baiña apur bat kosta arren be, "zorionak emon" esan bear geunke. Onelan: "Josebe alaba ona da eta beronen ama zarra zoriondu egiten dau zartzaroan". Baiña ez "Josebe alaba ona da eta aitzu barik urtero zoriontsu dau ama Bizkai Irratiaren bidez". Obeto "zorionak emoten dautsoz amari..". Beste leku baten azalduko dogu "zorionak" ala "zoriona" esan bear litzaken.

**Olazar'tar Martin**



## JAGON DAIGUN BAKIO

Gure erriak badaukaz inguru polit-politak. Orreeriko bat dogu **Oiaga** (*Oidxa*) izeneko. **Oiaga** deritxon inguruak lur saila asko daukaz, geienak jaubedunak dira. Beste batzuk, ostera. erriarenak dira, esaterako. **Oiaga-erreka** (*Oidxa-errekie*), **Mendialdeko** bidea, arrobia (*Kantarie*) eta itsasoaren artean dagoanak. Lur saila orreeriko goren-go lekuan, itsasoari begira, **Oiagako Kurutxea** (*Oidxako Kurtde*) dago.

Inguru ori loi, sastarrez beteta, bertan beera itzita edota erdi galduta dago gaur egun. Ara joaten dira motordunak motorren ganean ara-onaka ibiltzen eta, bide batez, gurata edo gureztala, lotuten dan lur eta bedar apurra laskituten, atxak agiri-agirian izten dabezala. Ara joaten dira, udan batez be, astegoietan edo aretza egunetan turistak jaten, euren maaiak: jesarlekuak eta infernua atarata, bazterrak ondakin bezetara izteko. An agertuten dira be, lantzean beinean, txapelokerren Land-Roverrak, oinezkoen ezusterako. Egon be, barrura sartuteko alango sasi-bidea eginda dago eta. Nonork be, ostuka edo, etxeko ondakinak an botaren izan dauz.

**Oiaga** deritxon tokiari deutsoela dagoz **Atxuloko** atxak. Atxotara arrantzan joaten dira batzuk. Oneek be obeak ez dira, ze atxetan ikusten dira euren itzitako latak, plastikoak, paperak. amu zaarrak. arrantzarako ari zatiak... Eta au gitxi balitz legez, kainaberak euste bearen ganean zuloak egiten dabez, beca guztiz ondatuta izten dabela. Areexek atxak be negargarri dagoz.

Ganera, inguru biotara parajetuten diran asko, oinez joan bearrean, kotxe eta guzti joaten dira, **Mendialdeko** bidearen alboak aparkaleku eginda egoten dirala.

Nire eritxi apalean. inguru a jagon egin bear da. Orreeriko neurriak artu bear dira. Uste dot, ganera, Udalak artu bear dauzala neurriok, leku eder ori leengora ekarteko. Nik neuk neure aldetik onangoxeak ekarri dodaz ona zeuen aurrera:

1.- *Uren ara:tegitik asita* **Urizarreta** *etxegino bidea trafikoari itxi*. Bertako baseri edo etxeetan bizi, ango solo eta basoetan bear egiten joaten diranai zein larrialdietarako izan ezik.

2.- *Goian aitatutako* **Oiaga** *inguma konpondu, garbitu eta polito atondu edo apaindu*. Au da, an botatako porlana kendu, sastarrak batu. lur ona ekarri. bedarra erain eta jagon, jesarleku eta sastarrontziak imini...

3.- **Atxuloko** atxak garbitu eta ingurua konpondu, leengo lez, polito atondu.

4.- Jakina! An inguruan aparkatutea, ibilgailuagaz ibiltea, maaiak-eta imintea, suak biztutea, sastarrak bearen ganera botatea, eta abar... galazon bearko litzakez.

Auxe da, bada, idazkitxu onen bidez Udalari eldu eragin gura deutsoan erregu-eskabidea. Alan egin ezkerroan, inguru a urte askotarako eukiko dogu, danon gozamenerako. Izan be. biotopoa jagoteko lurraldea bertan ondoan daukagu eta **Oiaga-Atxulo** ingurua aren aurrealdea ondo be ondo izan leiteke. Zeuen eskuetan, alkate-zinegotziok!

**Iniaki Martiartu - Bakio**

## EUSKERAZALEAK

Izkuntz eder bat bardinbagea  
jakitunen eritxian,  
asabagandik artu genduan  
mendi ta zelai artian,  
aldi artako giza semeak  
ba eben gatza soiñian  
baita be argi dizdizkaria  
curen bekoki gaiñian.

Munduko izkuntz guztiak dagoz  
alkarrekin kideturik,  
euren arteko jakituriaz  
eta ederrez josirik,  
eun da geiago dira taldeak  
eder ta antzez josirik,  
gure izkuntza, bakarrik, dago  
seigarren maillan tinkorik.

Euskera izkuntz zoragarria,  
antxiñateko loria,  
alkar aitzeko sortu zenduen  
pilosopizko elia,  
Eguzkiza ta Orixe jauna

Lizardi ta Lauaxeta,  
beste askogaz batera dira  
Euskadirentzat argia.  
Izar aundiei jarraiturikan  
agertu ziran gizonak,  
Bizkaiko seme lerdin zirenak  
sortuz EUSKERAZALEAK,  
euskera ama indartu nairik  
zabalduz bere bideak,  
izkuntz eder bat izan egien  
Aitorren seme-alabak.

Ainbat urteko katei sendoa  
daroa bere soiñean,  
lan ta izerdiz txit eratua  
Bizkaiko lurrean gaiñian,  
zuk nai ba dozu zabalduko da  
euskera gure lurrean.  
zuk nai ba dozu edertuko da  
euskera bere senean.

**Paulin**

# DENBORAREN GURPILLEAN

## (1ºSARIA)

Okergunez betetako tren bidea ikusten da. Lau aizetara mendiak, erriak, baserriak. Traka, traka... badoa tren. Barruan beste batzuren artean, bi gizon eldu alkarren aurrean. Batak besteari begira tarteka. Leendik alkar eza gutzen dutenaren susmoa, edo, ba dute nonbait.

—Zu Joxe ez al zera?

—Bai. Eta zu Antonio.

—Bai, ori bera. Gaur egun naiago det ordea, Andoni esanda. Garai batean euskal izenak debekaturik zeuden, eta Andoni nintzan etxean eta Antonio kalean. Orduan orrela izran gauzak, eta bearko ixilik egon...!!!

—Bai, Andoni, soldaduzka egin genuaneko garaia.

Bai Joxe. Berrogeitamar urte luze igaroak dira geroztik. Ura bukatu, eta bakoitzak etxerako bidea artu gengan, eta ainbeste urtetan zear ez degu alkarren berririk izan.

—Gogoan det Andoni, soldaduzka bukatu eta lagunei esan zeniguna: "Misiotara joateko erabakia artu det".

—Orrelaxe da Joxe. Misiolari Ameriketara joan nintzan, eta an ikasketak egin, eta apaiztu era bai, egin nintzan. Berrogeita bost urte igaro ditut misiolur alde aietan, eta aurtan itzuli naiz. leenengo aldiz nire jaiolurrera, Euskal Errira.

—Zuk utzi zenuan Euskal Erri ura oso aldatua aurkitu al dezu? Aldaketa galantak somatuko zenituan, noski?

—Bai Joxe. Orixe bai. Batzuk txarrak, eta beste batzuk onak. Denboraren gurpillak lerrotzen dituanak. Ludi onetan dana mugikorra izaten bait da. Zuk, Joxe, zer diozu...?

Nire ustez, Andoni, emen bizimodua erabat aldatu da. Oiturak. bizibidea, fedea, gizalegea, eta politika ere bai, azken au, noski diktadorea il eta gero. Zu apaiza zerez, erligio aldetik somatua izango dezu aldaketa nabarmena. Elizara joateari askok utzi dio. Leen, ustez zerbait oker zana egiten zuanak, burua aal zuan eran estali egiten zuan... Orain, berriz, batzuren ustez dana berdina da. Bakoitza bere askatasunaren jabe ornen da, eta zernai egiñik ere burua tente jarriko dizute orrelakoak. Ibildeunak kaleetan, errosarioa familian eta Pazkoarekin betetzea, batzurenzat kontu zaarrak dira, apaiz-kontuak. Eta ez ornen dute orren bearrrik bizitzeko, eta gero, gerokoak, esango dizute Ea aal dan erarik onenean bizi batzutan bizibide ori nondik eta nola datorren ondo aztertu gabe. Zer esan...!

—Ara Joxe: Nire uste apalez gauzak bere garaiko kutsuarekin ikusi bear izaten dira. Gure gaztaroko "Nacional Catolicismo" zalakoak eragin aundia zuan.

Goitik beera ezartzen ziran gauzak. Orduan itxurak betetzeari garrantzi aundia ematen zitzaion. Alde batekoak nagusi, eta besteak mii lotuta bizi bear, bestela ondorio txarrak gerta zitezkean iritzi utsa emateagatik ere. Askotan orrelaxeak entzuten genituan: "Bai, igandean mezatan eta Jauna artzen, eta gero "estraperloarekin" besteren gosearen bizkar aberasten". Bai, orrek guda denboran, gezuzrren indarrez salaketa galantak eginda, bat baiño geiago onnaren aurka eraman zuan, eta gaur egun ibildeunetan santuak bizkarrean artuta or zebillek" Eta beraz, itxura betetze aiek, nire uste apalez, askoz ere okerragoak ziran gaurko zabarkeria baiño, Joxe. Gaur egun ere badago jende on askoa. Lagun gutxiago ikusten da eleizan; sakontasunetik ordea agian irabazi egin da. Fedea geiago sakontzen da Egiaren billa, eta eleizara joaten danak ez du besteren iritzia eta begirada kontuan; bere barruak agintzen diona betetzen du, eta ez du uste izaten besteak baiño obeagoa danik, eleizara joaten dalako.

—Eta zuk Joxe, zer diozu azken boladan euskeraren irakaskintzan artu diran erabakiekin?

—Nire ustez Andoni, bi zatitan banatu bearko genduke azaroa. Leen diktadorearen zigorpeko garaian, gurasoen bitartez ondo baiño obeto ikasten zan euskera etxeko epeltasun goxoan. Euskerari jakintza bideak itxi egin zitkioten, eskolatik kanpo utzi zuten, eta or euskera erabiltzen zuana gaiñera zigortua izan zan. Gaur egun ez dago orrelakorik, giro ura amaituta dago. Ikastolak zabalik daude, etorkiñen umeak ere euskera ikasten dute, baiñan giro berri orretan, euskera batuaren aitzakiarekin sortutakoak, ez dira makalak izan!

—Beraz Joxe, oroar, gaurko denbora euskerarentzat obnea dala esan aal genezake?

—Bada, Andoni, bai eta ez.

—Eta ori nola liteke?

—Orain ogeitamar urte, zu Ameriketara ziñan, eta zalantzarik gabe guk baiño arazo larriagoak zituztenei laguntzen, eta agian ez dakizu euskera batuaren inguruan sortu zan iskanbilla, bere sakontasunean beintzat. Bestela zerbaiteren berri badezu, noski. Euskaldun berri batzuk nagusitu ziran arazoan, eta lapurtera zaarra berpiztu bear zala caten zuten, eta ortxe oiñarritu euskera batua, euskalki ori erabillia goa izan zalako literatura zaarrean. Kontuan izan gabe euskera biziaren, erri-euskeraren indarra eta orren bear ezinbestekoa.

—Eta euskaldun berri orien aurka zer jarrera zegoan bestaldetik?

—Iritzi orien aurka, denborarik zaillenean ere ainbat lan egindakoak atera ziran. Batez ere eleiz-gizonak. Umetan etxean, ondo ikasitako euskera landu, eta gero beren eginkizunetan erriaren aurrean erabilli zutenak. Erri euskeraren indarra egokiagoa zala zioten, euskera aal zitekean neurrian batzeko edo beintzak euskalkiak alkarrengana urbiltzeko, literatura zaarrean oiñarritutako erabiltzen ez zan euskalkia baiño. Azken batean euskaldun berriak nagusitu ziran, eta dekretu bidez, alajaiña!

— Zer ondorio ekarri du agindu orrek?

—Begira Andoni, bizkaiera erabat kanpoan utzi dute bide berri orretan, erriaren euneko berrogeitamarrean sus-traitua eta edatua dagoan euskalkia.

—Jokabide txar orren aurka, Kardaberaz Jakintza Bazkunako bazkideak, bere bizi guztian garairik txarrean ere sendo jokatu zutenak euskeraren alde, Euskerazaintza izeneko Erri Akademia eratu zuten, euskalkiak landuz orduan arte egindakoari etenik sor ez zekion.

—Eta azken batean zeintzuk izan dira ondorioak? Zertan da arazoa?

—Leendabizi esan bear deguna da, 7000 urteko denboraren joanean, euskalkien indarrez, bere osotasunean iraun duan euskerak, izugarrizko jipoa artu duala, esan bezala, dekretu bidez, eta ori nork egingo eta etxekoa! Amaika ikusteko jaiok gera...!!!

—Eta orain arazorik larrienak zeintzuk dira, Joxe?

—Ori aipatzearen baztuk adieraziko dizkizut: Umeak ikastolatik eramaten duten euskerarekin, batez ere Bizkaian, arazoak dituzte beren gurasoekin alkar ulertzeko. Bizkaiko lurraldean kokatutako Euskal Telebistak, kanpoan utzi du erabat bizkaiera, Eta berdin egin dute Erri Erakundeetan eta gazetaritzan. Ortik kontuak litera!!

—Eta lapurtera zaarra nagusitu al da, aipatu dituzun erakunde orietan?, Joxe.

—Bai zera!! Azken batean gipuzkera nagusitu da, zerbait mozorroturik erabiltzen badute ere. Azken batean Euskerazaintza'ren iritziaren barruan. Ainbeste urteren buruan, orduan sortu ziran istilluak sortuta gero. Eta azkenean aukeratu duten bide orretan, dakianak ba daki, eta gipuzkera menderatzen ez duanak, lanak ditu, euskera batua itz egiten duala esanez, ortxe dabil aal duan moduan.

—Orduan Joxe, Euskerazaintza sortu zutenak arrazoi?

—Orixe bai, esan dizudan bezala. Euskerazaintza'ko bazkide geienak eliz gizonak ziran, alkartea sortu zutenean, eta beraz. erriko jendearengandik urbil bizi ziranak... Eta iñork baiño argiago ikusten zuten amarengandik ikasitako izkuntzaren eragiña eta bearra, zerbait itxurazkoa egingo bazan. Indarraren arrazoia nagusitu zan ordea, eta ez bear bezala, arrazoiaren indarra, dekretu bidez, alajaiña ¡Ori da ori akademizismoa!! Or ere politikoak nagusi, batzuk euskeraz tutik ere ez badakite.

—Erljioa eta euskerarenak jorratu ditugu, Joxe. Nik orain auxe esan nai dizut: Emen somatu dudan alderik aundiena, bizimoduarena izan da. Laneko bizibidea asko obetu da. Nik orain berrogeitamar urte, bizimodu aldetik utzi nuan Euskal Erriak, ez du zer ikusirik oraingoarekin. Langil apalenak ere bere etxea du, kotxea ere bai, eta umeak Unibertsidadera bidaltzeko aukera guztiak berekin ditu. Zuk ikusiko bazenu nola bizi dan jende xea ni misiolari egon naizen lurralde aietan...!!!

—Bai Andoni, emen ere zerbait entzuten degu orri buruz,

—Baiñan, Joxe, bertan egon gabe ezin liteke antzik eman ere, zenbateraiñokoa dan ango mixeria. Umeak oiñez ikasi bezain laister, katakumeen antzera, badoaz iesi aal duten arrapatzera zerbait <sup>o</sup>ora eramango badute. Millaka dira, eta mendian erbia bezala, tiroz iltzen dituzte kale bazterretan. Nire Jainko maitea! Badago gaur egun ere non zabaldua Jesukristoren mezua! Aberatsak gero eta aberatsago, eta txiroak gero eta ugariago eta txiroago.

—Bai Andoni, ni baserritar izan naiz nire bizi guztian. Baserria leen eta orain, oso neketsua izan da, eta etekin motzekoa, zerbait alor ori obetu bada ere. Zuk aipatzen dizkidazunak ordea, misio lurralde aietako arazo larriek, ez dute zer ikusirik gure bizimoduan dauzkagunekin Gizarajoak!!! Argi eta garbi ikusten da an ere eleizaren bearra eta bere misiolarien lana, Jesukristoren Berri Ona zabaltzen.

Trena bitartean aurrera joan da eta urrengo geltokira gertu da.

Andoni altza da, eta Joxe agurtzera doa.

—Ederki Joxe, aspaldiko lagun zaarra, poz aundia izan diat berriz alkar ikusita, eta aspaldikoak eta gaurkoak denbora gutxian, ederki asko jorratu dizkiagu geure ikuspegi apaletik ikusita. Ea berriz noiz ikusten degun alkar!

—Andoni: Urtero kinto lagunak anaitasunezko bazkari bat egiten diagu eta urrengorako ere deitua izan adin, urrutizkiñaren zenbakia utzi ezaidak, eta zuzen zuzen ots egingo diat. Eta aspaldiko lagun zaarrak an berriz ikusteko aukera ezin ohea izango dek.

—Ondo dago, Joxe, agur bada, eta urrengo arte.

Jose Mari Murua Goñi



# EZKERRA TA ESKOIA

Asko kezkatzen nau gure Etxe Nagusiaren larri-aldi onen egoerak; arritu egiten nabe, ez dodazelako ulertzen: "nola egon leikez etxe bateko semeak ain urrun euren etxeko sinismenagandik".

Kezkatu, arritu eta etsipeneko larri alditan sartzen nauana da. Geiago, lengo egun baten lez, entzun nebanean abertzale aundia dan baten aotik eta urteetan ondo sartuta dagoan emakume betegandik, galdetu daustanean ia. nik sinisten neban gure Euskalerrri maite onek, berriz askatasuna ikusiko ebal. Nire erantzuna, arrituta egon arren beragandik galdera ori entzuteagaz, baiezkorra, zalantzarik gabe izan zan, eta askeen "JAINKOA'gaz eta BEREN LEGEA'rekin ziurtasun eta sinismen aundia daukalako, naiz-ta gaurko naazpiltasunak beste gauza bat erakutsi", esanda.

Euskalerrria oso zaarra da sinismen-bakoa izateko, eta gure arbasoengandik ondo baiño obeto jantzita izaeraren sinismenean eta emondako arrazoi aundiakaz "EUSKAL-ETXE NAGUSIEN bidetik JAINKOA'ri begira izan bear dirala, gure bizitzaren nai-ta naiezko ordezkari ekintzak bideratuta". Ardura aundiena bera izan da: "NORTASUNIK GABE EZ DAGOALAKO ARRAZOIAREN EDO ARIMAREN ARLOAN IÑUNGO BIZITZARIK".

Baiña orretarako une baten geratu bear gara lenengo, oldozpen edo gogorapen oiek zuzentzeko. Begitu gure arteko naazpiltasuna eta zoramena bakeratzeko bigarren, eta zentzu onean Etxe Txikerretik asita, EUSKALERRIA edo danona dan ETXE-NAGUSIA askatu daigun.

Indar aundiak daukaguz aurka, xautzailetasun au batez be, baiña beste alde batetik ikusita eta gure ezbai edo zalantzak eraginda, erbestetasunetik gauza asko artzen doguzalako, gure izaeragaz zer-ikusirik ez daukienak eta gutxiago, gure arbasogandik oiturazko zentzuakaz jantzitakoarekin. Galdera bat agertzen da emen: "gure EUSKALERRIAN zer da ESKUMALDEKO edo ESKERRALDEKO izatea?"

Itaun oneri erantzuteko, edestian begiratu daigun labur-laburrean jakiteko: nola naazpiltzen gaitun burutasun edo gogamen orrek leenengo, eta zelan gure Errian ez daukagun iñungo zentzurik, gaur gogamen orrekaz jokatzeko gure ardurazko arrazoietan, bigarren.

Nundik nora dator ESKUMALDEKO itz ori"? Mundu onen kaizar-jauntza edo erregetza, eta batez be Europa onetan, euren Izaeraren Nortasuna galtzen asi ziranetik XI'garren gizalditik onantza, eta jakin barik lenengoetan nora edo nungo lekura elduko ziran arrotasunezko bide ortatik, sari-jainkotasunean agertzen dira XVI'garren gizaldean. XVII'garrenean aitzokada edo sastakada emon gura dautso gizartearen eta Errien Nortasunak kontuan euki gabe, gizia malladuna izan daiten, eurak edo erregetza ori goi-mallako trangoan jesarrita sari-jainko lez: euren ustean bereinkapenak, diruak, zigorrak eta parkamenak morroitasunari banatzeko.

Espataren bitartez eta bere keiñadurakin, Europa guztian gaur, berezitasunean nortasun-gabeko jaurkintzak daukaguz eta batez be Euskalerrrian, batzuen Nortasun gabeko eritxiagaitik naazte baten sartuta, gura nai-ez, eta urten bear dogun lekutik len bait-len.

Jaurkintza orretan, sasi-jainko eritxidun orreik eta eritxi bardiñeko eleiztar apaizen indarra be aleginduta: erlijioaren sinismenetik "AITAREN ESKUMALDEAN JESARRITA" eurentzat atara dabe, eta orregaitik jaurkitzan eskumaldean ezartzen dira; "orregaitik esaten dautsie eskumaldekoak dirala". Gaur, gordetzaillearen itzagaz lotuta gura dabe agertu, baiña ez dauka zer ikusirik, eskumaldeko itz ori menperetzaillearen izaeraz lotuta dagoalako.

Orregaitik gure Errian gaur, ez dauka zentzurik eskumaldekoak garala bata-besteari esateak: abertzaletasuna menperetzailletasunagaz, Nortasuna Nortasun gabekoakaz, berezitasuna berezitasun-gabekoakaz naaztuten gabiltzalako. Gure Erriaren Nortasunean: gordetzaillearen edo euslariaren eritxiokoak izatekotan aldebatetik, eta alderdi-gabeko kementasunagaz edo azkartasunagaz beterik berba egin geinke, argitasun geiago egon daiten gure artean, eta ori izan bear dalako azken baten gure alegiñaren itxura, danok zentzu baten agertzeko. eta danok batera ELBURU LEZ EUSKADI ASKATZEKO.

EUSKO ALDERDI JELTZALEA eskuindarra dala esan gura dau? Orren gogamena olan dala gogoratzen dauanak, ez dauka nun dauan burutasunik, ez Euskaldun izatea zer dan be. Orko gogamenetik urten bear dogu len bait-len, lupetzaretetik argitara urteteko.

Eta EZKERTIAREN itzak zer esan gura dau? eskerraldean jesarrita egon zirenak bakarrik? ARANA eta GOIRI'tar SABINO'k Bizkaiko Aldundian leenengoz aurki lekua lortu ebenean, ez ziran eskumaldekoak menperetzaillearen eritxiokoak bakarrik, zortzi taldek osotuten eben Aldundiaren jaurkintza, karlista eta fueristatik asita danak ziran Espainol menperetzaillearen eritxiokoak.

Zergaitik? sasi-jainko kaizargo eta erregetza XIX'garren gizaldian gogortasun guztiaz, diru gutxiagaz gura eben langilleai ordaintzea, sendiak eta bizitzeko diran gauzak kontuan euki gabe. Erantzun baten ordezkari SINDIKATU edo langilleen elkarteak sortu ziran Ingalaterra'tik asita langillearen babesekintzarako; eta Laterri menperetzaillearen aurka izan zan lez. Berezitasunaren Nortasuna edo Erriak kontuan euki barik, orren maillan izkatu ziran. Langilleak ez eben ulertu, menperetzailletasuna ez zala etorten lan-tokiko jaun edo ugazabagandik Laterrien jaurkintzatik baiño, eta bigarren erantzunagaz, okerraldi berean SOZIALISMUA sortu zan, bereala, goiko mailla aundiagoko batera igon-da, "ERRI-ARTEKO SOZIALISMUA" ain zuzen, betiko okerra aundiagotuz, Erri berezien eskubideak zapalduta egon zirenak

kontuan euki gabe. Gaur ortxe dagoz sozialistak jakin barik mundik nora dabizen, eta ez dira gai atzera begiratuaz okerrak zuzentzeko; orregaitik dagoz gaur erotasun guztiagaz curen eta danon etsai aundienagaz besarkatuta. Ez dira konaturatzen arazo guztia kaizargoaren eta erregetzaren arroke-riagaz ipinitako Laterri menperatzaillaren bidetik datorrela. Eta aituko dabe.... DEMOKRAZIA, baktzari berea emonda osotzen dala? Nungo edo zeren Nortasunari ordea?

Eta bai SOZIALISMOAK ta bai KOMUNISMOAK menperatzaill eritxikoak zirela, berezitasunaren aurka edo JAINKOA'ren bidea alboratuta ziurtatzeko, adibide bat ipiniko dot, ERRUSIA gai lez artuta Estaliñen denboratan: Stalin, ERRUSIA'ko Laterrien agintzarekin 1.927'ko XV'garren batzarrean jabetu zanean, 1.928-1.929 erreboluziñoa edo iraulketa. goitik-bera egiteko erabagia artu eben, eta zori txarrez, orrek esan gura dauana "DENBORA GUTXIAN" da.

Kulak deritxon nekazarietatik asi zan, nekazari aberatsen ordezko esangura eroaten ebelako izen orregaz, nekazariaren jakintzan ere aberatsenak ziralako.

Orrek, Staliñen gogoetan esan gura eban, curen lurretatik eta etxeetatik atara bear ebazala. nekazari lagunarte aundiak lortzeko, eta Siberia'ra bialdu debekatzaille edo lapurren antzera. Gero elkarte orretan bizi zirankk, langille arrotzen antzera biurtu ebazan, ezeren eskubide barik. 120.000.000 nekazari beartuta geratu ziran egitamu onen bitartez, 240.000 lagunarteko lan-etxeetan Laterria'ren agindupean.

1.929-1.930'eko egitamuan, Ukranian bakarrik 33.000 sendi atara ebazan curen etxeetatik. 200.000 arima gutxi gora-bera, asko eta asko Siberia'ko bidean il zirenak.

Ez noa luzetzen Staliñen denborako azalpen au, baiña zeaztasun bi emongo dautzuedaz: 14.500.000 il zirela 1.928-1.934'rarte gosez eta otsez. Eta Ukranian bakarrik 5.000.000; Ukraina'ko gizarte guztiaren laurena.

Staliñek berak esan eutson Churchill'eri urte batzuk geroago: "egitamu ori, nazi'en aurkakoa baiño gogorragoa izan zala eta gizartearen ordaiña curen bizitzakaz 10.000.000'en ilketako kopurua izan zala.

Izkuntzakaz ere, bardin-bardin egin eben Kaizar'en denboratik asita, ERRUSIA'ren izkelki dirala esanez.

Dana dala, ERRUSIA'ren Nortasun aundia lortzeko, nundik batu bear ebazan Nortasunik?': inguruan egon ziran Erri ezberdiñen Nortasunetik eurak Nortasunik gabe itzita nai-ta nai-ez.

Ori da Sozialismua? ori, eskumaldekoen antzera Menperatzaill osoa izatea da!, eta ERRUSIA errudunezko aria'ren astarnatik tiratu ezgero, kaizargo edo erregetzarena baiño askoz aundiagoa eta galtzaillegoa da.

Orduan zer esan gura dau "EZKERTAR" itzak? Eskumatarren antzera menperatzailllea dala zalantzarik gabe. Eta orregaitik ikusten doguz gaur. guretzako artean diran aurkari nagusienak "ESKUMALDEA eta ESKERRALDEA" besarkatuta, Menperatzaillletasunarekin alkartzen diralako.

Eskumatarrak eta Eskertiarrak BIAK!!, BEREZITASUNEZKO NORTASUNAREN aurka doaz JAINKOA'ren LEGE'ak alboratuz. Eta ekintza ori Guztiok! dagigu ondamendia eta etsipena dala. ERRUSIA'ri geratu jakon antzera: edestiak, okerreko bideak artzen diranean, ordaiña. zigor-gordintasunik aundienetan irakasten dausku-

zalako. Eta biak, BETI!! ezin dan geiago lekura eltzen diralako. Gaur Mundu guztian argi geratzen dan lez, Ameriketatik asita, guzurra gaiñean argi-argi geratzen danean.

Ortik agertzen da argi eta garbi. bear-bearrezkoa dala, arauaren azpiegiturak JAINKOA'ren LEGEA'kaz moldatuta egon bear direla (PARA LA ORDENACION DEL DERECHO-DEBER = POSITIVACION DE LAS LEYES NATURALES); Izadi onen legeak azkenerarte betikoak diralako.

Gure Euskalerrri maite onek, ez dau merezi bere seme/ala-bak alangoko amets-okerrean ibilterik gutxik baiño jakin barik; eta gutxiago gure artean borrokari. Geiago jakin bear dogu arerioari aurka egiteko: eta egarri ori, Euskal-Errotatik zurrupatuaz asetzen da. Sekula ez!! arrotzasunetik.

Ederto agertu eban politikako eskoia eta ezker zer diran, gero, lenengo Lendakaria izango zan Jose Antonio Agirre'k, Madrid'eko korteetan Maurak egindako itzaldi bateri erantzuteko. Lenengo. giroa agertuko dogu eta gero bere berbak, baiña ez itzez itz, apur bat laburtuta baiño.

"Ni Eusko Alderdi Jeltzalekoa naz eta gure esaldi nagusia "JAUNGOIKOA ta LEGE ZARRA" da. Eskoi eta ezker berba baragarri onein artean, guk bide argia daukagu: GIZABIDEKO KATOLIKUTASUNA.

Eskoikoa izatea demokraziaren aurka egotea ba'da  
GU EZKERREKOAK GARA.

— Eskoikoa izatea indar zapaltzalleen alde egotea ba'da  
GU EZKERREKOAK GARA.

— Eskoikoa izatea ba'da erlijioa ta politikea bat egitea  
GU EZKERREKOAK GARA.

Eskoikoa izatea ba'da eleiz eta erri-agintaritzta bakoitza beren lekuan ez egotea

GU EZKERREKOAK GARA.

Eskoikoa izatea ba'da gizarte-arazoetan atzerakoiak izatea

GU EZKERREKOAK GARA.

Eskoikoa izatea ba'da langilleen aurrerapena galeraztea  
GU EZKERREKOAK GARA.

Eskoikoa izatea ba'da gaurko aginpidedunak albortzea

GU EZKERREKOAK GARA.

Eskoikoa izatea ba'da ekonomian zuek zoazen lekura be ez eltzea

GU EZKERREKOAK GARA.

BAIÑA

— Ezkerrekoa izatea ba'da familiaren eskubideak kentzea

GU ESKOIKOAK GARA

— Ezkerrekoa izatea ba'da eleizak erretea, eleizaren aurka jokatzea

GU ESKOIKOAK GARA

"ASKATASUNA LORTU GURA DOGU DAUKAGUN INDAR GUZTIAZ; BAIÑA ORI, ZENTZUNEZKO LANAREKIN LORTZEN DA"

"GURE ARTEKO EKIMENAK, ERRI BAT BEZALA IZAN BEAR DABELA, ESAN GURA DAU GUZTI ONEK"

Atutxa'tar Paul  
Zornotzan 2001'an ABENDUA'ren 14'an

# LEGE ZARRAREN BEREIZITASUNAK (2001-09-29)

### GABON, JAUN-ANDREOK!

Urreratu gaitezcan itzaltasunik aundienaz gure aurretikoak egin ebezan legetara. Or dago gure izaerearen oinarria.

#### 1.- ZER DA LEGE ZARRA?

Izena bera be eztabaidagarria da. batzuk "forua" esaten dau-tsoe, lege bat ez dalako. Ori sartu da errian,esaterako "Foru-Aldundia".

Baiña lenagotik, bear ba'da Arana'tar Sabin baiño lenagotik, "Lege zarra" esan jako. Ez lege bat dalako. Lege Zarra ez da antxiñako lege bat. Izen orrek legeak egiteko almena esan gura dau. erritarrak egindako lege guztien kopurua esan nai dau.

"Foru" berbeak obeto agertzen dau geurea dala. baiña "Lege Zarra" k obeto erakusten dau erritik urtena dala, ez goitik emona.

#### 2.- EDESTIA

Ez dakigu noiztik asi ziran bizkaitarrak eurentzat oiturak lege lez artzen edo noiztik errietako arduradunak eskualde osoaren batzarrak egiten asi ziran. Ba-leiteke VIII gizaldian izatea.

Aldi luze baten, beste zazpi gizaldi inguruan. Bizkaia'k iru eskualde eukazan eta eskualde bakoitxak bere batzarrak egiten ebazan: Enkarterrikoak Abellaneda'n, Durangoaldekoak Gere-diaga'n eta ogi-lur edo lur lauan egoan Bizkaia'ren ardatza leku askotan batzen zan (Aretxabalagana, Bermeo, Idoibalzaga, Gernika), baiña azkenean batzarrak Gernika'n egitea erabagi zan. mendietan (Sollube, Bizkargi, Oiz, Koltiza) suaren bidez deia eginda. Gero eskuz egiten zan deia.

Iru Bizkai onek 1500n. urterako batu egin ziran eta bakoitxak bere batzarrak egin arren, noizean bein, ordezkoen bidez Gernika'n batzen ziran irurak. Ordezkaririk geienak Bizkai-ardatzekoak izaten ziran.

Erri bakoitxak ordezkari bat izendatzen eban, fogeraduna, etxeko jauna, autarkien bidez. Au joaten zan Gernika'ra.

Baiña aldi batzutan jabeak gitxitu egiten ziran. zorrak ordaintzeko etxea saldu egiten ebelako. Orregaitik. jabe ez zira-nak be eskubidea izan eben autarkia emoteko.

Gernika'ko batzerretan egin ziran legeak, errietako oiturak onartuta. baiña idatzi barik egozan eta 1452n. urtean idatzi zan foru-zarra. Batzorde batek egin eban idazketa 219 ataletan eta 1527n. urtean beste batzorde bat izendatu zan idazketa barria egiteko. Ogei egun emon jakezan idazteko, eta amaika naikoa izan ebezan. 1 Carlos erregeak baieztatu eban legedi barri au.

Legedi au erderaz idatzita egoan eta oraintsu il dan Pedro Puxana arabarrak euskeratu eban. Estornes Lasa'ren laguntzaz.

Legedi au ez da aldatu-eziña. Esaterako 1452n. urtean aldatu zan ezkonduak irabazitako ondasunak tronkalak izan daitez-zan.

Gure forua edo legedia geure-geurea da, baiña ba-daukaz kanpotik artutako oiturak geuretuta be. Jermanoengandik, Eskandinaboengandik eta Eleiz-legeditik artutako gauzak be ba-daukaz. Baiña beti lenengo erri-oituretara sartuta dagozanak.

#### 3.- ETXEKO JAUNA

Lege guztien iturria, etxeko jauna, fogeraduna, da. Zelako garrantzia daukan Euskalerrian etxeak!

Lenago leizetan bizi izan zan gure aurretiko Kromañon gizona, baiña egualdiak bigundu ziranean, otz aundiak igaro ziranean, kanpoan egin eban etxea (Ormaetxea artzaiñak eta Teillaetxea lugiñak) eta etxe orrek leizakoaren sustraia eukan: Sendiaren bizi-lekua, ildakoen illobia, eleiza eta dana zan etxea.

Etxeko bat ezkontzen zanean, etxebarria egiten eban. Orre-tarako Jaunak kortabaso emoten eutsan: Biribilla, ardatzetik 200 metro. Ortik Goikoetxe, Batiz: Goiko-Erdiko, Beko.

#### 4.- JAUNA BETI LEGEPEAN

Etxeko ja' una naiz gorago dagozan jaunak, guztiak ipinten dauz legepean gure Lege Zarrak: Etxeko jaunak berak esanda onartutako legea beti egin bear eban. Bizkai'ko Jaunak Lege Zarra betetea zin egin bear eban eta kanpotik datozen lege guz-tiak zugazpean foru-baimena edo "pase foral" bear eben eta bai-men ori emoten ez ba'da, lege barria onartu egiten zan baiña ez bete. "Se obedece pero no se cumple".

#### 5.- URIAK

Batzarrak onartuta Bizkai'ko Jaun ziran erregeak curen eskuak lotuta ikusten ebezan eta bide bat artu eben nai ebena egiteko: Euskal-lurren barruan uriak sortu, esaterako Markiña'n Villaviciosa. Ugao'n Miravalles, Legutiano'n Villareal...) Atxa-kiak beste batzuk ziran: Erritarrak gaizkilleen eskuetatik obeto zaintzeko.

Orrek naste aundia ekarri eban, toki baten lege-mota bi ego-zalako. erregearena eta Batzarrarena. Azkenean guztiak geratu ziran Gernika'ko Batzarraren menpean, baiña sendi-legeak bakoitxak bereak eukazala. Orain be orrelan dago.

#### 6.- GUZTIAK LEIÑARGI

Leiñargiak edo nobleak eskubide asko eukazan erdi-arogan eta geroago, gero esango dogun lez. Lege zarrak sarritan gogo-ratzen dau euskaldun guztiak dirala leiñargiak. Ortik sortzen da euskaldunen barditasuna, ez giza-maillako bardintasuna, ez ekonomi-girokoa, eskubide-arlokoa baiño. Legearen aurrean gara bardiñak euskaldunak.

#### 7.- GUDARITZA

Gudaritza edo soldaduzkea egin-bear astuna da erritarren-tzat: Aberria erasoten datzanean, aberria arriskuan dagoanean, erritarrak aberriaren alde guda egiteko egin-bearra da gudaritza.

Ara zer diñon Lege Zarrak: Bizkaitarrak beartuta dagoz aldundiak deitzen dauanean Bizkaia'ren alde gudea egiteko eta erasoa dakarren arerioak uxatzeko, baiña egin -bear au Biz-kaia'ren barruan bakarrik dauke eta Jaunak arago joatea eska-

tzen ba'dau ez dagoz beartuta: Luiando'ko zugatzean sartzen dabe euren astamakilla eta andik aurrera joateko Jaunak aurretiaz ille biko soldatea ordaindu bearko dau. Luiando'ko zugatz orreri "malato" deritxo, latiñetik "maleatus" "maillatua" da, ainbeste espata sartuta zugatza zaurituta egoten zalako. Gaur an kurutze bat dago.

Gudaritzara Bizkai'tik kanpora ez joatea, Lege Zarrak emoten eban eskubidea da.

### 8.- OIÑAZERIK EZ

Erdi-aroan eta geroago bildurgarriak ziran oiñaze edo torturak, batzutan zigor lez eta beste batzutan egia esan eragiteko. Leñargiak euken eskubidea zan iñoz be torturatua ez izatekoa.

Lege zarrak eskubide ori emoten dautse euskaldun guztiai, ez Bizkaia'n eta ez emendik kanpora, iñok ez eukan eskubiderik euskaldun edo bizkaitar bat torturatzeko.

### 9.- ZERGARIK EZ

Zergea eskualdean diran eralketa edo gastuai erantzuteko bidea zan eta euskaldun guztiak ordaintzen eben fogera edo sueteari egokion zergea, baiña ortik kanpora beste zerga asko etorten ziran, batez be jauna zan erregeak ezarriak, esaterako guda bat egin bear ebanean.

Bizkaitarrak, lege zarraren aginduz, zerga guztietatik egozan aske, eta iñoz bearrezkoa zala ikusten ba'zan, lenengo foru-baimena edo "pase foral" lortu bearko eban.

### 10.- EPAIKETAN ZIURTASUNA

Bizkaitar bat epaitzeko baldintza batzuk bete bear ebazan epailariak: Errudunari Gernika'ko Batzarraren bidez deitu, bere burua aurkezteko ille bateko epea emon, epe ori eleizetan oarra eginda zabaldu... Ori erruduntzat egoanaren ziurtasunerako zan eta arau asko dira. 1679n. urtean onartu eben Ingalaterran "Habeas Corpus" deritxon legea eta orren eskubide guztiak eta geiago beteten ebazan lege zarrak.

### 11.- ETXEKO JAUNA

Garrantzi aundia dauka Bizkai'ko lege zarrean etxeke jaunak: Kristo baiño aurreragotik, gizonak leizetatik urten eban ezkerre, etxea toki sagaratu lez artzen da. Ortze zaintzen dira sendi edo familiaren eskubideak. Eta etxeke jauna da eskubide orreik bete ta bete-eragin bear dauzana. Ona emen batzuk:

#### 11.1. Sendiaren onerako

Gauzea bear dan beste sakontzen ez ba'da, uste izan lei etxeke jaunaren aundikeri bat dala ori, baiña sakonago sartzen ba'zara laster ikusiko dozu etxeke guztien onerako dirala esku-bide orreik.

#### 11.2. Beste senideak

Etxea zatitu-eziña da eta osorik emon bear jako bateri, baiña beste senideak, anai-arrebak, naizta urrin bizi, etxekeak dira eta beti aurkitu bear dabe etxean jateko maia, lo egiteko lekua, jaiak edo illetak edo ezkontzak ospatzeko aukerea eta ilten diranean illobia.

Bakoitxa nongoa, zein etxetako dan abizenak agertzen dau, esaterako Goikoetxekoa edo Batizkoa.

Gure abizenak idazteko Azkue'k -ko atzikia ipinten eban:

Azkue'ko... Arana'tar Sabin'ek ostera jatorria agertzeko -tar atzikia ipiñi eban. Azkue'tar... Emen lege zarrak diñoana obeto agertzen dau Azkue'ren bideak: Abizena beti dago gizona edo andrea nongoa dan agertzen.

#### 11.3. Etxera nor sartu?

Esan dogu etxea toki sakratua dala lege zarrean. Etxe batera epailaria ba'doa, ez da urreratuko zortzi beso baiño geiago eta bialtzen dauan ertzaiña be izkillu barik urreratuko da.

#### 11.4. Ondasunak

Etxeak dauzan ondasunak eta lurak ez dira senditik kanpora joango: Jaunak zerbait emon edo saldu gura ba'dau, lenengo senideai eskiñiko dautse eta oneik nai ez ba'dabe orduan iñorenganatu. Orretarako deia eleizan edo eleizpean. Baldintza au bete ez ba'da, saltzeak edo emoteak ez dau balio.

#### 11.5. Ezkontzea

Gauza asko diñoz lege zarrak ezkontzeari buruz, baiña ez baliokoa dan ala ez argitzeko. Ori eleizaren esku dago. Ondasunen arazoa da agertzen dauana.

Ezkontzeko eskribau-aurrean egin bear da ituna: An esango da emazteak zer dakarren dote lez eta au beti izango da berea. Biak alkartuta eroango dabe etxe-bizitza eta ondasunak erdi-bana izango dira. Bat ilten danean, erdia izango da seme-alabena eta beste erdia alargunarena. Seme alabarik ez ba'dago, alargunak dotea ta irabazien erdiak artu eta etxetik joan egin bear dau. Beste senideak dira jabeak.

#### 11.6. Testamentua

Iru azken-nai edo testamentu-era agertzen dira lege zarrean: "Ilburuko" deritxona iru lekukoren aurrean berbaz edo idatziz egiten da. "Ordezkoduna" batez be etxedun izango dana umea danean, aitak ordezeko bat izendatzen dau eta onek aukeratuko dau etxeduna, adin eldukoak diranean. "Alkar-poderoso" da irugarrena. Au ezkontzen diranean egiten da geienetan eta bietatik bat ilten danean besteak artzen dauz eskubideak.

#### 11.7. Azken-naiaren gaiak

Ona emen azken-nai edo testamentuak bete bear dauzan gaiak: Etxea ez zatitu, bateri emon dana. Besteak eskubide batzuk izango dabez.

Bosten bat (115) itzi bear da arimearen alde, illetea egiteko, mezak agintzeko ta abar, baiña au irabazietatik emon bear da eta ez etxeari kenduta.

Ondasun barik geratzen diran beste seme-alabai legezkoa dana emoten jake: Arra bat lur, teilla bat eta errial bat.

### 12. AZKENA

Orra or, Jaun andreok, gure foru edo lege zarraren gauza batzuk. Gure baserrietan ori barru-barruraino sartuta egon da, baiña orain gauzak asko aldatu dira uri-usaiña be barru-barruraino sartu jakulako. Baiña gogoan daukat nire gurasoak nai eben jokabidea. Nik ez neukan etxearen jabetzarako eskubiderik, baiña nitzat bizi nazen arterako gela bat eta solo bat izatea nai eben; gero ori etxearena izango zan, etxea zatitu barik. Ez neban olako ezer artu baiña eurak ardura aundia euken.

Maitatu daigun gure Bizkaia, gure Euskalerrria, bere erakundeak eta bere legeak be bai. Ementxe jaijo ta aziak gara auxe da gure luna.

**Olazar'tar Martin'ek**



# EUSKALERRIKO OITURA ZAARRAK (OTO TAPOTOTOII)

## I.— IÑAUTERI ETA MAMU

—Gogoratzen aiz, i Oto, nola ibiltzen giñan Lazkao'n, Ortegung Gizen egunean (Iñauteri aurreko egunean) kaleetan atez-ate, kantari

*Otsaliko, Otsaliko*

*Nik otsoa bizirik ilko;*

*Okela bat eta okela bi*

*Nere burruntzie bete bedi... ?*

—Gaur egun oitura ori galdua dok; gaurko umek ez dakite Otsaliko abesten.

— Burrentzia eskuetan, bertan saieski, solomo, txorixo, urdai zatiak ezartzeko.

— Ataun'én beste era batera abesten eben umiek. Orra nola:

*Otsabilko, Otsabilko,*

*Ni basora joan da*

*Otso aundi bat*

*Ekarriko, ekarriko.*

*Neri lukaika mutur bat*

*Ematen ez diñai*

*Tripati aurrean burruntzie*

*Sartuko, sartuko...*

—Nundik ote dator oitura ori?

—Ni Napparroa'ko Huizi'n izana nok eta an onela esaten dabe egun orretan:

*Zistor mistor*

*emakunde...*

—Eta Emakunde izen onek zer esan nai dau, Pototo? Emakunde, Gizakunde eta Orakunde, or dozak iru berba alkarregaz zer ikusirik badaukatenak:

*Gizakunde zan gizonen eguna*

*Emakunde, emakumeena*

*Orakunde, guziena.*

— Eta, zer esan nai dabe berba orrek?

— Iru egun oneik, Iñauteri eta Karnabal aurreko iru ostegun ziran.

—Otsaliko bezela?

—Bardin. Gizakunde egunean konbita andreak egiten eutson gizonari. Emakunde egunean, alderantziz, gizonak andreari.

—Eta, Orakunde egunean?

— Biak alkarri. Orra Iñauteri aurreko iru ostegunetako festa.

— Iñauteri edo Karnabalak zer dozak, Pototo?

— Iñautegi, Zaldun-iyotiak eta Karnabalak, bat dozak danak.

— Karnabal-bariko erririk ez da izan gure artean sekulan.

—Mamu eta mozorroz jantziak erri guztietan ikusten ziran. Eta Iñauteriak ez dozak gaurkoak.

—Noizkoak, ba?

— 1682'garren urtean Oyarzun'go alkateak San Juan, San Pedro eta San Marzial eguneko Iñauteriak debekutzen ditu.

— Eta, Sanjuanetan be, Karnabalak egiten al ebezen?

—Garai aietan bai; baña, orain aldiko egunetan, Kandelario egunetik asita Austerre egunerarte irauten eben Oyarzun'go Karnabalak.

— Eta, jantzi, zelan jasten ziran?

— Buruan, ardi-larruz egiñiko mozorro bat; gerrian andrearen soñeko edo gona bat, baita oeako estalkia bizkarretik beera... eta, eskuetan Sorgin-Goraizak edo Artasiak.

\* \* \*

— Zer da mozorro, Pototo?

— Mozorro eta Zomorro, mamarro eta mamurro, mamu eta mumurra, danak dozak berba berdintxuak.

— Baña zer esan nai dabe izen oneik?

— Karnabaletako jantziak eta izate txiki-txiki batzuek.

— Sorgin txikiak?

—Bai, Galtxagorri eta Famelirekoen antzekoak.

— Eta, sorgin oneik zer ikusi dauka be Karnabalakin?

—Alde batetik, izena antzekoak. Sorgin oneik jostorraz-ontzi batean gordetzen dira eta eurok emoten deutez, aztiei indar bereziak aztikerirako... Beste aldetik, berriz, aztiak abere-narruz ibiltzen dira aztikeriak egiten, mamu baten antzera.

—Karnabalen antzera.

—Obeto esanda: Karnabalak aztien antzera. Azti onei indarra emoten deutesen Galtxagorri eta Familirekoek dabe mamurro, mamarro eta mamu izenak. Sorginak eta abere-jazkerak alkartzen dozak Karnabaletan.

—Iñauterietan txintxarriak ber erabiltzen dozak.

—Bai galantak Ituren eta Zubietako dantzariak erabiltzen dabezenak.

—Eta dantzak?

—Erri askoen oitura zan Iñauterien dantzariak ateraztea... Sorgiñak, aztiak, abereak, txintzarriak eta dantzak, ez ote dabe orre guztiok zer ikusirik gure aurrekoen leize eta koba-zuloetako bizi-moduarekin...?

– Alan ote da?

– Koba-zuloetan izaten ebezen gure aurrekoek euren elizkizunak: an egiten ebezen aztikeri eta sorginkeriak animalia-irudien aurrean. Zulo aietan aztiak mozorroz jazten ziran euren sorginkeri eta dantza rituaalak egiteko...

– Orreik gauzok ez al daude urrutitxo, Pototo?

– Geure euskal-sustraiak be zulo aietan daude... Geure odola andik ba'dator, oiturak, be, zer esanik ez. Ango kutsua eta usaiña dago geure gaurko karnabal-oituretan.

## II.— ZOZOMIKOTEAK

– Alditan, Pototo, Martxo il gogorra izaten dok.

—Baña, Oto, Martxoak kalte gogorrek egiteko Apirillarena bear izaten jok.

– Apirillaren laguntza?

– Bai; badira gai oneri buruzko esaera zaarrak Euskalerrian: Zozomikoteak.

– Eta, zer dozak Zozotnokoteak?

– Martxo jauna asarre bizian zebillen zezen gorri baten aurka eta bera akabatzea erabaki eban.

—Zer erabaki erabilli eban orretarako Martxo jaunak?

Zelai eta mendiak elurrez bete goi-goikoraiño: ez zan ikusten belar izpirik iñun.

– Orrela ilko eban zezena?

—Ez ba; zezenak arte zaar baten azpian gorde eban beure burua eta ango belarrak jauda iraun eban Martxo amaitu arte. Zezena bere eskuetatik alde egiten ziola ikusirik, bi egun t'erdi eskatu eutsozan Apirillari, zezena il aal izateko.

– Bi egun t'erdi oneik al dozak Zozomikoteak?

– Bai; baña, beste era batera esaten dabe Ataun'en: Apirillak Martxoari:

*A Martxo, Martxo!*

*Diat esker gaizto!*

Martxoak erantzun:

*A Apiltxo, Apiltxo!*

*Ekatzak egun bi*

*Ta erditxo.*

*Artzai orri*

*Kendu iotzan*

*Eun arti eta une*

*Eta berari*

*Ezkerreko begie.*

Emon eutsozan egunok eta izugarrizko ekaitzak eta urjolak sortu ebazan Martxok. Ur oiek eun ardiak aurretik artu eta eraman zituen arzulo batera. Artzaiak arie artu eta bazeraman uretatik aparte; baña, ardiak aldamenara begiratzean, sartu zion adarra begitik eta gelditu zan artzaia begi gabe. Martxoak egun gaiztoak luzatzen ditula, alegia.

## III.— ERRAMU-EREÑOTZA

Erramu edo ereñotza misterioz betetako zugaitza da. Nundik datorkio misterio ori eta erriak dautson errespetoa? Bere orriak iraunkorrak direlako? Bere ostroek dituzten sutantziengatik? Ez dakigu nundik norakoak diran arrazoibide orreik. Arri-arotik onera ala izan da beti. Baserri askok dabe bere inguruan erramu-ereñotzaren zugaitza.

### *Santi7amiñe*

– Pototo, zergaitik da Santimamiñe koba ospetsua?

— Bere leize-zuloan dagoz orain amar millatik gora urte asko, egiñiko animalien marrazki miragarriak: irudi oien aurrean egiten ebezan gure aurrekoak curen eizerako aztikeriak.

— Santimamiñe leizeko mendiak ereñotzez josita dagoz.

– Ereñotzakin batera sorginkeriz betetako esaera zaarrak, be bai. Kobazuloa, animalien marrazkiak, sorginkeriak eta ereñotza; guztiak alkarrekin Santimamiñe'ko leizean.

– Beste gauza bat ere badago mendi-gallurrean: San Migel'en ermitatxo (Oto'k).

Beerago, Santimamiñeko koba-zulo aurrean, beste ermitatxo bat: San Mames'ena.

– Guk onela abesten genduan:

San Mames, bart egin dot ames;

Ona ba'da bion partez

Txarra ba'da bijoa aldrebez...

### *Sanjuanak*

– Badabe Sanjuanak geure antxiñako oituren eguzkiganako zerbait.

– Sua, Pototo.

– Sua, lorak, lizarra, goizeko intza eta siniskeriak ugari.

– Eta ereñotza?

—Ez zaio erramurik falta. Ona zer dioten esaera zaarrak: San Juan gabean etxe-atarian egiten daqn

## EUSKALERRIA

suan, erretzen dira aurreko urtean bedeinkatutako erramuak.

—Beste esaerarik?

—Era berri baten: Erramu egunaren besperan erretzen dira erramu zarrak. Ori, San Juan suak aurreratzea dala esan oi dute zarrak...

### *Ekaitzak eta tximistak*

—Arri-aroko oitura da koba-aurrean aizkora bat, aoz gora, imintzea tximisten aurka.

Pototo, zer da Arri-aroa?

—Prehistoriako garai bat; orduan arria erabiltzen zan lanerako tresna bezela

—Aizkora be, arrizkoa al zan?

—Aizkora eta beste lanabes guztiak. Adarrezkoak ere baziran. Tximistari, tximist-arri be esan oi zaio. Tximistak jotzen duanean arrizko aizkora bat jeisten da lurrera eta zazpi estadio sartu lurpean...

— Orregaitik al da aizkora tximistan kontrakoa?

—Baita ereñotza be: Ekaitza sortzen danean, erramu orriekin gurutze bat egiten eta bular-gañean jarri...

—Erramu bedeinkatua?

— Erramu bedeinkatua zapaian edo tximiñi atzean gordetzen da; ekaitza sortzen dan bakoitzean, aldi bakoitzean, pittin bat erre bear da

—Eta geiago zer?

—Erramu bedeinkatua, ekaitz egunetan erretzeko, gorde oi da; ta erretzean, garrrik ateratzeko, erre bear da. Orretarako su-autsa botatzen zaio gañera, estaltzeko...

### *Sorgin eta gaitzen kontra*

—Zer diote oitura zaarrek?

—Etxeko leioetan erramu gurutze txikiak ikusten dira, sorgiñen kontrakoak.

—Eta, gaitzak?

— Gaitzetatik libratzeko gurutze txuriak (erramuzkoak) jartzen dituzte leio eta ateetan.

—Eta, soroak?

—Etxeak eta soroak zaintzen ditu erramuak.

—Zaindari ona al da?

— San Juan sua bezin ona eta geu ere ibillitzen giñan Sanjuan suakin sororik-soro sorgiñak aldentzen, kantari:

*Txarrak kanpora*

*Onak barrura...*

—Geure Euskalerrri zaarrean ez zan erramuzko gurutzerik falta soro bazterretan.

— Gaitz guztietatik libratzeko?

— Eta, batez ere sorgin, ekaitz eta tximistetatik.

### *Erramu-Eguna*

Jentillen ereñotza bataiatu egin eben eta Erramu biurtu. Arrezkero Erramu-Eguneko ereñotza erabiltzen da etxe, leio, ate, korta, baratz, solo eta abarretan eurak bedeinkatu eta gaitz guztietatik gordetzeko.

—Bentanetan be jartzen dabez?

—Ikulluetako ateetan an egoten dira erramu-gurutzea eta eguzkilorea biak alkarrekin.

—Zertarako?

—Biak dabe tximisten aurkako indar berezia.

— Zer dio oitura zaarrek?

— Erramu-egunean bedeinkatzen dira oen gañean jartzen diran erramuak.

— Eta, geiago zer?

— *Erramu Egunean gurutze txiki mordoskak eraman oi dira elizara bedeinkatzeko. Gurutze oien egurra saastzezkoa izaten da. Baña, gurutzean erramu ostoak jarri bear dira... Soro bakoitzeko iru gurutze...*

### *Maiatzeko Santakutzak*

— Zer diote oitura zaarrek?

— Erramu Egunean eta Maiatzaren Iruan, sarastz edo erramuakin egindako gurutzeak eraman oi dira bedeinkatzera...

— Eta, zer geiago?

— Maiatzeko Santakutz egunean, artzaiak erramu gurutzak (kandela tanto batzuekin) egin oi dituzte txabola atean, ardiak gordetzen diran kobetan, ardi-esietan, baratzetan eta landetan jartzeko ekaitzaren kontra...

—Besterik?

— Erramu gurutzeak, kandela bedeinkatu tanto batzuekin... Erramu gurutzeak erriaren mugetan jartzen dira Maiatzeko lendabiziko egunetan.

— Sanjuan suak, Maiatzeko Santakutzak, Kandelario (kandelak bedeinkatzen diran eguna), erramua... Orra zenbat gauza alkarrekin naasirik.

Beste zenbait gauza

—Bada besterik, ala?

— OI la-lokak, txitoak okerrik gabe atera ditzan, arrautz azpian bi erramu osto ipiñi bear dira...

—Nun besterik imiñi bear dira erramu ostoak?

—Ermitetan, bedeinkazioak egiten diranean, erramu ostoak jarri bear dira urbedeinkatu-ontzian...

IV.— ELORRI-ARANTZA

*Elorri Zuri*

Udaberriakin batera agertzen dira gure mendietan elorri-lora txuriak ikuskizun zoragarria: elur-malutak adarretan zintzilik, ala tximeletak alkarri beuren amorioak kantari...?

Elorri-arantzak eta erramu-ereñotzak alkarren inguruan dabiltz euren artean badabe zerikusirik asko.

—Zer, baña?

—Erramua bezela, elorri-arantza be, oso da misterio-soa: ez zaio falta ez Sanjuanik, ez Maiatzeko Santakutzik, ez tximistarik...

— Arri-arokoak al dozak orrek, be'?

— Illunbe aietan dabez beuren sustraiak. Nork argitu illun aiek?

— Zeuk argitu.

— Ni belar-arteko ipurtargia nauzu; baña, ona emen argi-izpitxo batzuek.

*Erramu-gisan*

Zeanuri'n diñoena:

— Maiatzaren Iruan bedeinkatutako elorri zuriekin gurutzeak egiten dira soroetan jartzeko.

Ipar-aldeko Euskalerrria'n:

— San Juan egunean, goizean goiz, eguna zabaltzerako, juaten da etxeko jauna bere soroetan elorri txuria aldatzera. Geroago, berriz, bi adartxorekin gurutzea eginda, etxeko atean josi. Aurreko urteko adar zarrak San Juan eguneko sutan erre oi dituzte.

Urbia'n, berriz:

Artzaian txabolako atean San Juan egunean bedeinkatutako gurutzea jartzen dute elorri zuriakin egindako gurutzea.

*Tximistak*

Berrero Ipar-aldean:

— Sara'ko ermitearen kanpo aldeko gurutzearen ondoan elorri zuria jartzen dute, tximistak ermitea jo ez dezan. San Juan egunean, ikulluko ate-buruan elorri arantza jartzen dute. Txismisten kontrakoa oi da.

Ataun'en:

— Txabolako atean, helar onakin batera, elorri zuria jartzen dute tximistaren kontrako.

Oyartzun'en:

— Maiatzeko Santakutzetan Urkabe mendira joaten dira errogatibetan mutil koskorrak, loretutako elorri zuri adar bat eramaten dute bakoitzak. Errogatiba ondoren, adarrekin gurutzeak egiten dira, leioetan jartzeko, tximistaren kontrako.

— Zergaitik da elorri txuria txi misten kontrakoa?

— Ara zer dioten Iparaldeko Euskalerrria'ren ertzean: Gazkuña'n uste dute elorri zuriaren gañera ez dala tximistarik erortzen.

—Zergaitik?

— Ekaitz batean Ama Birjiña Jesus aurra besoetan zuela, elorri zuri baten azpian gorde zalako.

Lapurdi'ko kontu zaarretan maiz aitatzen da elorri zuria. Ona eman, gauza askoren artean, zer dion Mary Aristi'ren "Mutil baten historioak":

—Elorri txuri baten azpitik ateratzen zaio emazteki zahar bat (ura zan Ama birgiña...) Andre arrek eman zion elorri zuri adar bat... (Mutila deabruakin burrukan eginda)... Gogoatu zitzaion bear zue la bere elorri txuria: artu zuen eta arekin eman ziozkan iru golpe eta kasatu zuen.

— Eta zer da "Istorio mistorio"?

— Mutiltxo baten kondaira. Bera jaio baño len, bere gurasoek deabruari saldutako ume baten istorioa.

— Umeak jakin al zuen ori?

Jakin zuanean etxetik alde egin zien, Kamiñoan zijoala atxo zaar bat atera zitzaion bidera: Azkenean gan zen aurra. Eman zen bidean; suerta zaion ikustea atxo zahar bat. Galdetu zion nora zoan. "aide kurri noa". Eman nion aurrari elorri txuri adar bat, jo zezala lehendabiziko atzeman zituen portalak.

— Eta, elorri beltza, zer?

—Badegu berriren bat Ataun'en: Artzaiak ez dute sekulan elorri beltzaren arantzarik ezertako erabiltzen; benenoa oi dauka. Sugeak sustraiak jaten omen dizkio elorri beltzari neguan.

Arrinda'tar Anes, lekittarra  
(Deban - 1968)

=x=    =x=    =x=






kultura  
sortzen dogu



kultura



BILBAO 700 • III MILLENIUM

Sormena bultzatzen dogu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, barriak eta klasikoak, bear-bearrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Au da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

200 pezeta (1,20 Euro)

**bbk<sup>2</sup>**